



Getxomeeting berezia maiatzaren 11n: bota iezadazu erronka bat.

Getxomeeting *networking* mota desberdin bat da: elkarlanean ikasteko konfiantza-giroa sortzen duen esparrua dugu, non udalerriko ekintzaileek eta enpresek euren esperientziak partekatu, eta besteei konponbideak eta aholkuak ematen dizkieten.

Parte-hartzaileek azpimarratzen dute topaketek laguntzen dietela laneko errutinatik ihes egiten eta energia berritzen.

Gure saioetan nork bere burua txandaka ezagutarazteko ohiko aurkezpenak alde batera utzi, eta beste formula batzuk darabiltzagu, hala nola fitxak eta ausazko ordena bat. Horrela, aktiboago entzutea lortzen da, eta parte-hartzaileek modu naturalagoan aurkezten dituzte beren enpresak eta proiektuak.

Topaketa bakoitzean dinamika desberdinak egiten ditugu, gure proiektu eta enpresei transmititu nahi diegun mezua hobetzen joateko.

Aurreko saioa, maiatzaren 11koa, erronkei buruzko saio berezia izan genuen: ekintzaileek erronka bat planteatu zioten komunitateari, *feedbacka* eta ideia berriak ezagutzeko.

Kaferako atsedenean, parte-hartzaileek proposatutako erronkak jorratu zituzten eta, ondoren, balioa erantsi eta konponbideak eman zizkieten talde-lanean.

3-4 pertsonatako taldeak osatu genituen, eta horietako bakoitzak gainerako parte-hartzaileen erronka batzuk landu zituen.

Konponbideak berri-tankeran eman ziren, taldeen lanari sormen-ukitu bat emateko.

Planteatutako ondorioak oso positiboak izan ziren; izan ere, enpresa askok aurrerantzean garatzeko lan interesgarriekin atera ziren topaketatik. Amaieran, parte-hartzaileek aipatu zuten emaitza onak eman zituela taldean landu izanak beste enpresa batzuen erronkak informazio guztia ezagutu gabe.

Beharrezkoa da saio bakoitzerako izena ematea, baina bat baino gehiagorako egin dezakezu aldi berean. Saioak bi ostegunik behin egiten dira, 12:00etatik 14:00etara Getxolanen.

Izena emateko, mezu bat bidali dezakezu getxolan@getxo.eus helbide elektronikora edo, bestela, 944660140 telefono-zenbakira deitu. Nahiago baduzu, Getxolanera ere bertaratu zaitetzke (GetxoElkartegia; Ogoño 1, Areeta).

Hurrengo saioa maiatzaren 25en egingo da.
Ordura arte!